



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE



Bilbao

UDALA
AYUNTAMIENTO

lautan hiru

antzerki txikia – festibal handia

Antzerki-ekoizpenari laguntza (2.500 euro).

- Euskaltzaindiak antzerki-ekoizpena sustatzeko laguntza sortu zuen 2020an, Bilboko Udalaren babesarekin. Aurtengoa zazpigarren aldia izango da.
- Helburu nagusia euskarazko antzerkia hauspotzea da, batez ere, pieza laburren sorkuntzari lagunduta.

oinarri-arauak

- Antzezlanek, gehienez ere, 30 minutu eta, gutxienez, 15 minutuko iraupena izan behar dute.
- Testuek euskaraz idatzita egon behar dute.
- Antzezlanak jatorrizkoak eta estreinatu gabekoak izan behar dira; hau da, ez da beste hizkuntza baten itzulpenik edo antzezlan luzeago baten moldaketarik onartuko.
- Era berean, ez dira onartuko antzerako beste laguntzaren bat jaso duten piezak.
- Bakarriketak ere onartuko dira.
- Lanak areto txikietan antzezteko modukoak izango dira; hau da, formatu txikikoak; hots, giza baliabide eta beharrian tekniko gutxi eskatzen dutenak.
- **Hautatutako proiektuari mentoretza-lana egingo dio Lautan Hiruk**, Tartean Konpainiaren laguntzaz. Horrela, jarraipena egingo zaio ekoizpen-prozesuari, sortzaileei laguntza eta aholkuak emanez.

gaia eta moldea

- Libreak izango dira.

epaimahaia eta aukeraketa

- Epaimahaia LAUTAN HIRU antzerki-jaialdiko arduradunek osatuko dute.
- Epaimahaiak lan bakarra hautatuko du.
- Epaimahaiak laguntza ez ematea ere erabaki dezake.
- Epailen erabakia apelaezina izango da. Saria 2.500 eurokoa izango da, eta **hautatutako antzezlanak 2027ko LAUTAN HIRU antzerki-jaialdian estreinatuko litzateke** (epaimahaiak jarraipena egingo dio ekoizpen prozesuari).

epeak

- Lanak (gidoia + proiektuaren ezaugarri nagusiak) bidaltzeko epea 2026ko urriaren 2an amaituko da.
- Parte hartu nahi dutenek lanari buruzko ahalik eta informazio gehien bidali beharko dute posta elektronikoz.

bidali beharreko derrigorrezko datuak

1. Taldearen izena.
 2. Jatorrizko testua (testu-fitxategi batean edo PDF formatuan).
 3. Antzezlanaren zuzendariaren eta gidoilariaren izenak.
 4. Antzezleen izenak.
 5. Laburpena.
 6. Gutxi gorabeherako iraupena.
 7. Antzezteko tokiaren ezaugarriak eta beharrian teknikoak (piezaren bideo laburra –lagin bat– ere lagungarria litzateke).
- **Informazio guztia posta elektronikoz bidaliko da Euskaltzaindiaren helbide honetara: info@euskaltzaindia.eus, mezuaren GAIAN hauxe adierazita: ‘LAUTAN HIRU antzerki-ekoizpenari 2026ko laguntza’.**
 - **Wetransfer edo Smash bidez ere bidal daiteke (oinarrizko informazioa bideoaz lagunduta badoa).**

Antzezlanen jabetza

Ikuskizunaren jabetza eta lana beste kulturgune batzuetan antzezteko eskubidea muntaia egiten duen talde edo konpainiarena da, baina etorkizunean egingo lituzketen emanaldien publizitatean beren-beregi azaldu beharko litzateke ‘LAUTAN HIRU ekoizpen-laguntza’ jaso duela.